

AMILAMI: Laminen istorioak

Juan Kruz Igerabide
Marrazkiak: Elena Odriozola

Juan Kruz Igerabide idazleak eta Elena Odriozola marrazkilariak egindako liburua da. Laminei buruzko amandre-ipuina luzea edo eleberria da. Liburuan kontatzen denez, protagonista nagusia, Amilami lamina, Entziako mendietan bizi zen haurra zenean. Gero Baltzolako kobazulora joango da, Sugoik zerbi-tzatzera. Amilami esnea emateko gai da, eta ikusten duenean Sugoik esnea kendu nahi diola alde egitea erabakitzen du. Handik, berriz, gaur egungo mundura egingo du jauzi, eta Gasteizen, Txagorritxuko ospitalean, erizain hasiko da.


Tradizio zaharreko testuak izan ditu oinarri Igerabidek. Batez ere Jose Migel Barandiaranen lanetan elikatu da. Amilami deitura, adibidez, kontakizun zahar batek dioenez, Agurain aldeko lamin-mota baten izena da. Horrelako batzuek egin zituzten hango trikuharri handi bi.

Barandiaranen lanak ez ezik, azken urteotan Nafarroan publikatu diren bi liburu ere baliatu ditu Igerabidek, biak ere adineko jendeari bildutako kontu zaharrak: Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma eta Bortzirietan aditutakoak.

Topatu dituen laminei buruzko testu asko osatu gabeak dira. Lamiak ahotik argia egiteko gai dira, lurrazpiko bideetatik ere ibiltzen dira, haserretzen direnean 'mur-mur' esaten dute.

Eleberri-egitura eman nahi izan dio Igerabidek eta, horrexegatik, ez du kontakizun barruan tradiziozko ipuinik txertatu nahi izan. Bukaeran irakur daitezke horrelakoak, Laminen istorioak izenburuko atalean. Hamabi istorio dira guztira.

Juan Kruz Igerabide



Juan Kruz Igerabide Adunan jaio zen 1956an, eta bertan bizi da. Maisu ikasketak egin eta irakasle ibilia da zenbait herritan. Filologia ikasketak egin, eta Euskal Filologian Doktoregoa egin zuen. Batxilergoko irakasle urte batzuetan ibili eta gero, gaur egun EHUko irakasle da, Euskal Filologia sailean. Itzulpen anitz egin du euskarara, bai haur literaturan, bai helduenean.

Literaturari buruzko zenbait ikerketa ere egin ditu, batik bat haur literatura arloan. Haurrentzako liburu asko idatzi du, gehienak ipuinak; bere lehen haur-liburua Beginiaren poemak izan zen (Erein, 1992), eta geroztik arlo horretan zenbait liburu idatzi du. Bere liburuetakoz batzuk hauek dira: *Abraham* (Erein, 1998; gazte literatura), *Jonas eta hozkailu beldurtia* (Aizkorri, 1998; haur literaturako Euskadi Saria), *Hamabi galdera pianoari* (Alberdania, 1999; gazte literatura), *Helena eta arrastiria* (Elkar 1999; gazte literatura), *Botoi bat bezala* (Anaya-Haritz, 1999, haur poesia)...

Elena Odriozola



Elena Odrizola 1967. urtean Donostian jaio zen. Publizitateaen hasi zen lanean, mundu horretan zortzi urte pasa situen. Aldi berean, liburuak ilustratzen hasi zen, baina 1998. urtean publizitatea utzi eta bere lana marraztea, ilustratzea zela erabaki zuen.

Testu liburu asko, kartelak, programak eta era askotako irudiak egitez gain, hainbat liburu irudiz bete ditu (60 baino gehiago). Espaniako 2005eko Gazte eta Haur Literaturako ilustrazio onenaren bigarren saria eskuratu zuen *La princesa que bostezaba a todas horas* (Camen Gil, OQO editorial) libururako egindako irudiengatik

SANTURTZIKO UDAL LIBURUTEGI SAREAN BERE LIBURU HAUEK AURKITU DITZAKEZU

- Bularretik mintzoa
- Begi-niniaren poemak
- Egun osorako poemak eta beste
- Txokolatea basoan
- Egunez parke batean
- Denboraldi bat ospitalean
- Gauze zoo batean
- Neskaxa telepatikoa
- Amesontzi
- Gau, gau, gau
- Atea kox-kox
- Bota ura!
- Jonas eta hozkailu beldurtia
- Jonasen pena
- Jonasen iratzrgailua
- Munia ohe azpian lo

Gomendatzen den irakurketa 8 urtetik gorakoentzat da